# KORRIKA 19

## *Denok Korrikara!*







**A2 MAILA**

**AUTOIKASKUNTZA**

# KORRIKA 19. *Denok Korrikara!*

**Ondoko atazen gaia Korrika 19ren kanta izango da. Hasteko, kanta entzun eta berari buruzko informazioa irakurriko duzu; ondoren, kantak eskaintzen duen mezuari erreparatuko diozu; horrekin guztiarekin batera, mailari dagozkion eduki batzuk landuko dituzu. Amaitzeko, kanta ikasten ahaleginduko zara.**

**Helburu horiei guztiei modu atsegingarrian ekiteko, ondoko bi ataza hauek proposatzen dizkizugu.**



## 1. ataza: *Denok Korrikara!* Korrika-kanta (5-11. or).

Ataza honen helburu nagusiak dira **Korrika 19ren kanta ezagutze**a eta **kantaren mezuaz jabetzea**. Horretarako, kanta entzuteaz gain, berari buruzko informazioa irakurri eta jolas bat egingo duzu kantaren hitzak ezagutzeko; azkenik, kantak esaten duena argituko duzu.

**HELBURUAK**

- Korrika-kanta ezagutzea.
- Kantaren mezua ulertzea.
- Musikari buruzko lexikoa ikastea.
- Esaldietan, hitzen ordena argitzea (galdegaia).
- Ezezko esaldiak.

## 2. ataza: Ikas dezagun kanta (11-14. or).

Ataza honen helburua da **Korrika 19ren kanta buruz ikastea**. Horretarako, hiru bat astean luzatuko den jolas-antzeko jarduera-sorta egitea proposatzen dizugu. Jarduera horien bidez, kanta ikasteaz gain, aukera izango duzu bertan agertzen diren lexikoa eta hainbat egitura interesgarri ere ikasteko. Ataza hau hiru egunetan egingo duzu, elkarren artean astebete utzita.

**HELBURUAK**

- Korrika-kanta ikastea.
- Kantan agertzen den lexikoa ikastea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Mintzatu | Bideoa ikusi | Kanta | Idatzi |
| Entzun | Irakurri | Jolasa | Ariketa |

## Korrika 19. *Denok Korrikara!* (A2)

Ikasleek ataza bi egingo dituzte: lehenengoan, Korrika 19ren bideoklipa ikusi eta kantari buruzko hainbat ariketa egingo dituzte ("*Denok Korrikara!* Korrika-kanta" ataza): kanta entzun, berari buruzko informazioa irakurri, hitzak osatu, esanahia argitu...; bigarrenean, Korrika-kanta buruz ikasten saiatuko dira ("Ikas dezagun kanta" ataza).

**TUTORETZA**

- Mintzatu kantari buruz ikaslearekin: gustukoa izan duen, ikasi duen, aurreko kantak ezagutzen dituen...

### MINTZASAIOAN GAIAZ ARITZEKO PROPOSAMENAK

- Ikasleek aurreko Korriken kantaren bat gogoratzen duten esan eta kanta horiei buruz dakitena esango dute: noiz entzun duten, nork abesten duen...
- Kanta horietako batzuk entzungo ditugu. Horretarako, Korrikaren webgunera jo dezakezu (***http://www.korrika.org/index.php?lang=eu***), multimedia atalera.
- Entzundako kantei buruz mintzatuko gara: zein izan dugun gustukoen, zergatik

## A. *Denok Korrikara!* Korrika-kanta

Ikusi Korrika 19ren kantaren bideoklipa eta egin proposatzen diren ariketak.

| EGINKIZUNAK | ZUZENKETAK |
|---|---|
| • Ikusi "*Denok Korrikara!*" bideoklipa, irakurri "*Korrika 19ren kanta*" testua (5-8. or.) eta egin proposatzen zaizkizun ariketak. | • Erantzunak 15. orrialdean. |
| • Korrika kantaren hitzak ezagutzeko, egin "*Kantaren hitzak osatu*" ariketa zenbakiak letrekin ordezkatuz (9. or.). | • Erantzunak 15. orrialdean. |
| • Kantaren hitzen esanahia ezagutzeko, osatu "*Zer dio kantak?*" ariketaren esaldiak (10. or.). | • Erantzunak 15. orrialdean. |
| • Erantzun "*Zer deritzozu kantari?*" ariketako galderei eta eman zure iritzia Korrika 19ren kantari buruz (11. or.). | • Komentatu erantzunak tutorearekin. |

## B. Ikas dezagun kanta

Kantak buruz ikastea oso eginkizun interesgarria da lexikoa eta gramatika ikasteko orduan. Horregatik, Korrika 19ren kanta ikasteko ariketa batzuk proposatu nahi dizkizugu.

| EGINKIZUNAK | ZUZENKETAK |
|---|---|
| • Korrika-kanta egun batzuetan entzun ondoren, egin *"Ikas dezagun kanta. Lehenengo saiakera"* ariketa (12. or.). | • Jakiteko zenbat hitz kokatu dituzun dagokien lekuan, **alderatu**[1] zure erantzunak kantaren hitzekin (16. or.). |
| • Egin modu berean "*Ikas dezagun kanta. Bigarren saiakera*" (13. or.) eta "*Ikas dezagun kanta. Hirugarren saiakera*" (14. or.) ariketak, haien artean egun batzuk utzita kanta ikasteko. | |

1. **Alderatu:** *comparar*

## Korrika 19ren kanta

Irakurri testua eta egin proposatzen zaizkizun ariketak.

### 1. Korrika-kantak

Korrika bakoitzak bere kanta du. Lehenengoa, Xabier Amuriza bertsolariak egin zuen 1980an; azkenekoa, 2013an, Esne Beltzak; eta ***gainerakoak***[1] beste euskal musikari ezagun batzuek egin dituzte: Betagarrik, Gosek, Mikel Laboak, Niko Etxartek, Oskorrik...

| Korrika | Abeslariak | Abestia |
|---|---|---|
| **Korrika 1** (1980) | Xabier Amuriza | *Korrika 1* |
| **Korrika 2** (1982) | Akelarre | *Korrika 2* |
| **Korrika 3** (1983) | Egan | *Korrika 3* |
| **Korrika 4** (1985) | Lontxo Aburuza | *Korrika 4* |
| **Korrika 5** (1987) | Oskorri | *Korrika 5* |
| **Korrika 6** (1989) | Xanti eta Maider | *Gu AEK-koak gara* |
| **Korrika 7** (1991) | Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe | *Korrika 7* |
| **Korrika 8** (1993) | Tapia eta Leturia | *Aide Korrika* |
| **Korrika 9** (1995) | Maixa eta Ixiar, Alex Sardui, Kepa Junkera | *Bizi ganoraz* |
| **Korrika 10** (1997) | Gozategi | *Euskal Herria Korrika* |
| **Korrika 11** (1999) | Joxe Ripiau | *1 eta 1* |
| **Korrika 12** (2001) | Fermin Muguruza | *Big Beñat* |
| **Korrika 13** (2003) | Mikel Laboa eta Ruper Ordorika | *Gero bat gaurdanik* |
| **Korrika 14** (2005) | Niko Etxart eta El Drogas | *Heldu* |
| **Korrika 15** (2007) | Afrika Bibang | *Ni ere bai* |
| **Korrika 16** (2009) | Betagarri | *Ongi etorri laguna* |
| **Korrika 17** (2011) | Gose | *Pausoz pauso euskalakari* |
| **Korrika 18** (2013) | Esne Beltza | *Bagoaz* |


Afrika Bibang


Ruper Ordorika


Ines Osinaga (*Gose*)


Fermin Muguruza

Korrika-kantak entzun nahi badituzu, Korrika 19ren ***web-gunera jo***[2] (***http://www.korrika.org/***) eta *multimedia* atala zabaldu.

### 2. Korrika 19ren kanta: *Denok Korrikara!*

AEK-ko ikasle eta irakasleen artean ere badira musikariak, eta aurtengo Korrikaren kanta horien artean sortu dute. Kantak *Denok Korrikara!* du izena, eta musikariak honako hauek ditugu: Jojo Bordagarai, Amaia Ezenarro, Maxime Diribarne, Asier Goieaskoetxea, Andoni Tolosa, Cedric Ilhardoy eta Mattin Sorzabalbere.


**Jojo Bordagarai**


**Maxime Diribarne**


**Andoni Tolosa**


**Cedric Ilhardoy**


**Asier Goieaskoetxea**


**Amaia Ezenarro**


**Mattin Sorzabalbere**

**1. Gainerakoak:** *el resto*  **2. Web-gunera jo:** *dirigirse a la página web*

## 1. ARIKETA:



→ Irakurri azalpena era erantzun galderei:

### HITZEN ORDENA ESALDIETAN (GALDEGAIA)

Galdera batzuetan **NOR**, **NOIZ**, **NOLA**, **NORK**, **NORA** eta horrelako formak agertzen dira (galdetzaileak). Galderak horiek egitean, galdetzaileak aditzaren aurrean jartzen dira:

1. **NORK egin zuen** 16. Korrikaren kanta?
2. **NOIZ egin zuen** Betagarrik Korrikaren kanta?
3. **NOREKIN abestu zuen** Mikel Laboak Gero bat gaurdanik kanta?

Galdera horiei erantzuteko, honela egiten dugu:

| | |
|---|---|
| 1. **NORK egin zuen** 16. Korrikaren kanta? | - **BETAGARRIK.**<br>- **BETAGARRIK egin zuen.**<br>- 16. Korrikaren kanta **BETAGARRIK egin zuen.** |
| 2. **NOIZ egin zuen** Betagarrik Korrikaren kanta? | - **2009AN.**<br>- **2009AN egin zuen.**<br>- **2009AN egin zuen** Korrikaren kanta. |
| 3. **NOREKIN abestu zuen** Mikel Laboak Gero bat gaurdanik kanta? | - **RUPER ORDORKAREKIN.**<br>- **RUPER ORDORKAREKIN abestu zuen.**<br>- Mikel Laboak **RUPER ORDORKAREKIN abestu zuen** Gero bat gaurdanik kanta. |

Erantzunean aditza jartzen badugu, galdetzailearen erantzuna aditzaren aurrean jarriko dugu:

NORK → BETAGARRIK
NOIZ → 2009AN
NOREKIN → RUPER ORDORIKAREKIN

Adibidez:

**NORK egin zuen** 16. Korrikaren kanta? ←
- a. **BETAGARRIK egin zuen** (BAI).
- b. 16. Korrikaren kanta **BETAGARRIK egin zuen** (BAI).
- c. **BETAGARRIK egin zuen** 16. Korrikaren kanta (BAI).
- d. **BETAGARRIK** 16. Korrikaren kanta **egin zuen** (EZ).

→ Hasteko, irakurri ondoko galderak eta aukeratu erantzun zuzenak.

**1. Nork egin zuen lehenengo Korrikaren kanta?**

a. Lehenengo Korrikaren kanta egin zuen Amurizak ........ ☐
b. Lehenengo Korrikaren kanta Amurizak egin zuen ........ ☐
c. Amurizak lehenengo Korrikaren kanta egin zuen ........ ☐

**2. Noiz egin zuen Oskorrik Korrikaren kanta?**

a. Korrikaren kanta Oskorrik egin zuen 1987an ........ ☐
b. 1987an Oskorrik egin zuen Korrikaren kanta ........ ☐
c. Korrikaren kanta 1987an egin zuen Oskorrik ........ ☐

## 2. ARIKETA:

Orain, erantzun ondoko galderei.

**1.** Fermin Muguruzaren kanta *Ni ere bai* da?

..........................................................................................................................................

**2.** Noiz egin zuen Gozategik Korrika-kanta?

..........................................................................................................................................

**3.** Nork abesten du *Denok Korrikara!* kanta?

..........................................................................................................................................

**4.** Kontrabaxua Andoni Tolosak jotzen du?

..........................................................................................................................................

## 3. ARIKETA:

Amaitzeko, irakurri testuaren bukaera eta erantzun galderei.

### 3. Kantaren doinua

Korrika 19ren kantaren egileek ez dute doinu berririk sortu. Hori egin ***beharrean***[1], doinu ezagun bat hartu dute eta moldaketa batzuk egin dituzte. Doinua Oskorri taldeak 1977an ***argitaraturiko***[2] *Sautrela* kantarena da. Oskorriren kantaren hitzak, berriz, Bernat Etxepare idazlearen poema bat dira.

**Oskorri** musika-taldea 1971n sortu zen, eta folk-musika egiten du musika-tresna tradizionalak eta modernoak erabiliz. 44 urte hauetan, 20 disko baino gehiago argitaratu ditu; horien artean, *Mosen Bernat Etxepare 1545* (1977). Disko horretan dago *Sautrela* kanta.




**Bernat Etxepare** apaiza euskaraz argitaraturiko lehenengo liburuaren idazlea da: *Linguae vasconum primitiae*. Liburu horretan dago *Sautrela* bertsoa. Etxepare Nafarroa Beherean jaio zen 1475 inguruan eta bizitza gehiena Garazi aldean eman zuen. Hil zen lekua eta data ezezagunak dira.



*Denok Korrikara!* kantaren azken bertsoa beste kanta batena da: Mikel Laboaren *Herria eta Hizkuntza* kantarena. Kanta eta doinua Laboarenak dira, baina bertsoa Xalbador bertsolariarena da.

**Mikel Laboa** donostiarra XX. mendeko euskal kantaririk ***garrantzitsuenetakoa***[3] izan da. Lehenengo diskoa, *Lau herri kanta*, 1964an argitaratu zuen; handik aurrera, kanta ezagun asko egin zituen: horien artean, *Hizkuntza eta herria* izenekoa.



**Fernando Aire *Xalbador*** bertsolaria eta artzaina Urepelen jaio zen 1920ko ekainaren 19an. Bertsoen gai nagusiak bere bizitza, familia, baserria, fedea eta natura izan ziren. Xalbador Urepelen hil zen, ***bihotzekoak jota***[4], 1967ko azaroaren 7an, Urepelen ospatu zen bere omenaldi-egunean.



**1. Beharrean:** *en vez de…*
**2. Argitaraturiko:** *publicado, -a*
**3. Garrantzitsuenetakoa:** *de los/las más importantes*
**4. Bihotzekoak jota:** *de un infarto*

Erantzun ondoko galderei. Horretarako, idatzi esaldi osoak.

**1.** Korrika 19ren kantaren doinua berria da?

..........................................................................................................................

**2.** Oskorrik *Sautrela* kanta 1545ean argitaratu zuen?

..........................................................................................................................

**3.** *Sautrela* bertsoa Oskorrik idatzi zuen?

..........................................................................................................................

**4.** Noiz argitaratu zuen Miel Laboak bere lehenengo diskoa?

..........................................................................................................................

***5.*** Zein zen Xalbador bertsolariaren ogibidea?

..........................................................................................................................



## KANTAREN HITZAK OSATU

Korrika-kantaren hitzak osatu nahi badituzu, bete ondoko esaldietako hutsuneak eta ***ordezkatu***[1] zenbakiak letrekin.

- Gitarra jotzen dutenak G I __ __ __ __ __ - __ __ __ __ __ __ __ __ __ __ dira.
  (1 2 7 9 6 6 9 - 17 5 7 14 9 2 12 16 9 3)
- Idatzi hutsuneetan "*asko*" eta "*melodia*" hitzen sinonimoak: "*Mikel Laboak* __ __ __ __ __ __ __ (11 9 4 9 2 3 9) *kantu eder egin ditu*" / "*Korrika-kantaren* __ __ __ __ __ __ (10 5 2 18 19 9) *ezaguna da*".
- "*Euskaldun bat,* __ __ __ __ __ __ __ (7 8 9 13 16¨ 12 9) *; bi euskaldun,* __ __ __ __ __ __ __ (9 13 19 20 7 19 9)*; hiru euskaldun,* __ __ __ __ __ __ __ __ __ (9 15 16 20 15 9 7 14 9)" (esaera zaharra).

DENOK KORRIKARA

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, Euskara ***lauda ezan***[2] Urepele herria
handikan baitu Korrikak __ __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ (11 9 20 2 16 6 9 / 15 16 6 6 2 9)
Bilbon ospatzekotan ba kilometro azkena
__ __ __ __ __ __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ (8 9 12 15 9 10 5 6 6 16 18 / 15 9 15 16 20 16 9 18) emanen du lehena

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

Euskaldunak herrietan ahaldun gaitezen
__ __ __ / __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ __ __ (16 7 9 / 1 19 6 16 / 4 2 18 7 14 9 16 6 9 14) denak harro ***gagozen***[3],
Urepeletik Bilbora lekukoa gidatzen
__ __ __ __ / __ __ __ __ __ / __ __ __ __ / __ __ __ __ (1 2 14 9 / 3 9 7 16 9 / 16 7 16 18 / 1 9 15 16) oro laster goazen

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
__ __ __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ (1 5 6 16 18 16 9 18 / 2 3 19 20 7 16 3 5) euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiek hauxe eskatzen dute,
__ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ (18 5 12 9 / 14 9 15 9 12 10 19 9 / 10 9 1 5 18) ***prezia***[4] bezate.

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ __ __ (16 19 20 3 9 12 / 17 16 18 10 9 6 7 16 9 3),
euskahaldun bihurtuz datozen urteak.
__ __ __ __ __ / __ __ __ __ / __ __ __ / __ __ __ __ __ (11 9 4 9 6 / 16 1 19 18 / 16 7 9 / 1 9 19 16 14) Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik sugarra.

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz orroit, euskaraz ahantzi
bertzek euskara maite, __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ __ __ (11 16 6 6 2 9 / 1 9 2 7 14 16 7 20 2);
hizkuntza ta herria ***berex***[5] ez ***doatzi***[6],
berek nahi daukute konpreniarazi
__ __ __ __ / __ __ __ __ __ __ __ / __ __ __ __ (15 9 7 9 / 15 16 6 7 14 16 9 / 1 9 15 16) ez daizkela bizi.

1. **Ordezkatu:** *sustituir*
2. **Laudatu:** *alabar, elogiar*
3. **Gagozen:** *egon gaitezen*
4. **Preziatu:** *enorgullecerse*
5. **Berex:** *bereiz, por separado*
6. **Doatzi:** *doaz*

## ZER DIO KANTAK?

Osatu esaldiak eta kantaren hitzen esanahia irakurri ahal izango duzu.

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, Euskara lauda ezan Urepele herria
handikan baitu Korrikak hasiera berria
Bilbon ospatzekotan ba kilometro azkena
Xalbadorren babesean emanen du lehena

Euskarak Urepele ***goratu***[1] behar du, Korrika bertatik aterako .................. (1). Xalbadorren ***babesean***[2] hasiko da eta amaiera Bilbon ......................... (2) da.

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

Euskaldunak herrietan ahaldun gaitezen
eta gure mintzaeraz denak harro gagozen,
Urepeletik Bilbora lekukoa gidatzen
Giza katea eten gabe oro laster goazen

Euskaldunok ......................... (3) egon behar dugu gure hizkuntzaz. ***Giza katea***[3] egin behar dugu ......................... (4) ***lekukoa***[4] Urepeletik Bilbora eramateko.

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiek hauxe eskatzen dute,
nola zabaldua dagon prezia bezate.

Euskaldunok burua altxatu behar dugu gure hizkuntza ***gorenean***[5] ikusteko. Korrikazaleek hauxe eskatzen dute: .................... (5) beharra dago euskara nola ***zabaldu***[6] ....................... (6).

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala euskal jendarteak,
euskahaldun bihurtuz datozen urteak.
Hamar egun eta gauez Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik sugarra.

Euskal jendartearen gogoa ...................... (7) nahi dugu; horretarako, euskahaldun bilakatuko gara. Euskahaldunoi ................ (8), Korrika eta euskara hamar egun eta gauez ibiliko ............ (9) Euskal Herrian barna.

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz orroit, euskaraz ahantzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

Batzuk herriaz gogoratzen dira eta euskara ahazten dute; beste batzuek euskara maite dute, baina herria ez. Ulertu behar dute herria eta hizkuntza ......................... (10) doazela, ezin direla bata .................... (11) gabe.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. | 3. | 5. | 7. | 9. | 11. |
| DELAKO | ***HARRO***[7] | BALORATZEA | BETETZEN | DIRA | BESTEA |
| BAITA | HARROAK | BALORATZEKO | BETETZEA | DUTE | BESTERIK |
| DENEZ | HARRORIK | BALORATU | BETETZEKO | DITU | BESTEAREN |
| 2. | 4. | 6. | 8. | 10. | |
| OSPATZEKO | KORRIKAREN | DEN | ESKERRIK | ELKAR | |
| OSPATZEN | KORRIKAKO | DELA | ESKERRAK | ELKARREKIN | |
| OSPATUKO | KORRIKA | DELAKO | ESKER | ELKARREN | |

**1. Goratu:** *ensalzar, alabar*
**2. Babes:** *protección, amparo*
**3. Giza kate:** *cadena humana*
**4. Lekuko:** *testigo*
**5. Gorenean:** *en lo más alto*
**6. Zabaldu:** *extender*
**7. Harro:** *orgulloso, -a*

## ZER DERITZOZU KANTARI?

Zer iruditu zaizkizu Korrika 19ren kanta eta bideoklipa? Zure iritzia azaltzeko, erantzun ondoko galderei.

**A.** Ezagutzen dituzu aurreko Korriken kantak? Gogoratzen duzu ***baten bat***[1]? Zein?

..............................................................................................................

..............................................................................................................

..............................................................................................................

**B.** Zer iruditu zaizu Korrika 19ren kanta? Gustatu zaizu? Hitzak ulertu dituzu?

..............................................................................................................

..............................................................................................................

..............................................................................................................

**C.** Zer iruditu zaizu bideoklipa?

..............................................................................................................

..............................................................................................................

..............................................................................................................

**D.** Irakurri duzun testuan, kanta bi ***aipatu***[2] dira: Oskorriren *Sautrela* eta Mikel Laboaren *Herria eta hizkuntza*. Ezagutzen zenituen? Gustukoak dituzu?

..............................................................................................................

..............................................................................................................

..............................................................................................................

**E.** Kanta ikasteko asmoa duzu? Aukeratu zeure erantzuna ondokoen artean.

- Bai, jakina .................................... ☐
- Nola ez! ....................................... ☐
- Galdetzea ere! .............................. ☐
- Gaur gauerako, ikasita .................. ☐
- Dagoeneko badakit ........................ ☐
- Jakina! Zuk ez, ala? ...................... ☐




**1. Baten bat:** *alguno, -a*
**2. Aipatu:** *mencionar*

## IKAS DEZAGUN KANTA. LEHENENGO SAIAKERA

Korrika 19ren kanta pare bat aldiz, gutxienez, entzun duzu; hitzak ere irakurri eta osatu dituzu... beraz, osorik ez bada ere, ziur zerbait ikasi duzula. Bada, ondo ikasi duzun ala ez jakiteko, bete kantaren hutsuneak.

**Oraingo honetan**[1], hitz-zerrenda bat eskainiko dizugu hutsuneak betetzen laguntzeko. Aukeratu horien artean eta osatu kanta.

# Denok Korrikara!

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, Euskara ***lauda ezan***[2] Urepele herria
handikan baitu Korrikak hasiera _____________
Bilbon ospatzekotan ba kilometro _____________
Xalbadorren babesean emanen du lehena.

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

Euskaldunak herrietan ***ahaldun***[3] gaitezen
eta gure mintzaeraz denak harro ***gagozen***[4],
Urepeletik Bilbora lekukoa _____________
Giza-katea eten gabe oro laster _____________.

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko euskaldunon _____________.
Korrikazale guztiek hauxe eskatzen _____________,
nola zabaldua dagon ***prezia***[5] bezate.

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala euskal jendarteak,
euskahaldun bihurtuz datozen _____________.
Hamar egun eta gauez Korrika ta _____________;
euskahaldunei eskerrak pizturik **sugarra**[6].

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz ***orroit***[7], euskaraz _____________,
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria ***berex***[8] ez ***doatzi***[9],
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela _____________.

**KATEAK**
**GARBIA**
**HIZKUNTZA**
**HASI**
**HARRIA**
**LEHENA**
**ONENA**
***AHANTZI***[10]
**AZKENA**
**KANTATZEN**
**BILATZEN**
**GOAZEN**
**BERRIA**
**URTEAK**
**POLITENA**
**EUSKARA**
**GARA**
**JANTZI**
**DUTE**
**BIZI**
**IRRINTZI**
**POZA**
**DANTZATZEN**
**HITZA**
**USTE**

Zenbat hitz kokatu dituzu dagokien lekuan? ........................................................ ☐

**1. Oraingo honetan:** *esta vez*
**2. Laudatu:** *alabar, elogiar*
**3. Ahaldundu:** *apoderar(se), facultar(se)*
**4. Gagozen:** *egon gaitezen*
**5. Preziatu:** *apreciar, enorgullecerse*
**6. Orroit:** *oroit(u), gogora(tu)*
**7. Sugar:** *llama*
**8. Berex:** *bereiz, por separado*
**9. Doatzi:** *doaz*
**10. Ahantzi:** *ahaztu*

## Ikas dezagun kanta. Bigarren saiakera

Kanta ikasteko, egun batzuk izan dituzu. Lortu duzu? Hori jakiteko, beste ariketa bat proposatuko dizugu, aurreko astekoa baino apur bat zailagoa.

Korrika-kantan, pasarte batzuk falta dira. Hutsune horiek hitzez hitz bete beharko dituzu; horretan laguntzeko, ondoko zutabean dituzu falta diren hitz guztiak. Animo, txapeldun!

# Denok Korrikara!

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, ___euskara___ ***lauda ezan***[1] ___________ / _________
handikan baitu __________ hasiera __________
_______ ospatzekotan ba ____________ azkena
___________ / _________ emanen du lehena.

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

_____________ herrietan ***ahaldun***[2] gaitezen
eta gure mintzaeraz ________ /________ ***gagozen***[3],
Urepeletik Bilbora _________ / ____________
Giza katea _________/_________oro laster goazen.

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko __________ / ___________.
Korrikazale guztiek ________ / ___________ / ______,
nola __________ dagon ***prezia***[4] bezate.

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala ___________ / _____________,
euskahaldun bihurtuz __________ / _________.
________ /_______ eta gauez Korrika ta euskara;
euskahaldunei eskerrak __________ /___________.

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz ***orroit***[5], __________ / ___________
bertzek __________ / __________, herria gaitzetsi;
___________ ta ___________ ***berex***[6] ez ***doatzi***[7],
berek nahi daukute ________________.
bata bertzea _________ ez daizkela bizi.

**XALBADORREN**
**BILBON**
**BERRIA**
**GARAZIKO**
**EUSKARA**
**HERRIA**
**KORRIKAK**
**BABESEAN**

**LEKUKOA**
**HARRO**
**ETEN**
**EUSKALDUNAK**
**GABE**
**DENOK**
**GIDATZEN**

**ZABALDUA**
**HAUXE**
**DUTE**
**EUSKALDUNON**
**HIZKUNTZA**
**ESKATZEN**

**DATOZEN**
**SUGARRA**
**JENDARTEAK**
**EGUN**
**URTEAK**
**HAMAR**
**EUSKAL**
**PIZTURIK**

**AHANTZI**
**HERRIA**
**EUSKARAZ**
**HIZKUNTZA**
**MAITE**
**KONPRENIARAZI**
**GABE**
**EUSKARA**

➡ Zenbat hitz kokatu dituzu dagokien lekuan? ............................................................ ☐

1. **Lauda ezan:** *alaba, elogia (agintera)*
2. **Ahaldundu:** *apoderar(se), facultar(se)*
3. **Gagozen:** *egon gaitezen*
4. **Preziatu:** *apreciar, enorgullecerse*
5. **Orroit:** *oroit(u), gogora(tu)*
6. **Berex:** *bereiz, por separado*
7. **Doatzi:** *doaz*

## IKAS DEZAGUN KANTA. HIRUGARREN SAIAKERA

***Dagoeneko***[1], ez duzu inolako ***aitzakiarik***[2] kanta osorik ez jakiteko. Hortaz, aurrekoetan baino apur bat zailago jarriko dizugu lana: pasa den asteko kanta bera osatu beharko duzu, baina gaur hitz gutxiago eskainiko dizkizugu. Falta direnak zuk zeuk gogoratu beharko dituzu.

# *Denok Korrikara!*

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, ___*euskara*___ ***lauda ezan***[3]__________ / __________
handikan baitu __________ hasiera __________
________ ospatzekotan ba __________ azkena
__________ / __________ emanen du lehena.

**XALBADORREN**
**GARAZIKO**
**<u>EUSKARA</u>**
**HERRIA**

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

__________ herrietan ***ahaldun***[4] gaitezen
eta gure mintzaeraz ________ /________ ***gagozen***[5],
Urepeletik Bilbora __________ / __________
Giza katea ________ /________ oro laster goazen.

**ETEN**
**EUSKALDUNAK**
**DENOK**
**GIDATZEN**

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko __________ / __________.
Korrikazale guztiek ________ / __________ / ______,
nola __________ dagon ***prezia***[6] bezate.

**ZABALDUA**
**EUSKALDUNON**
**ESKATZEN**

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala __________ / __________,
euskahaldun bihurtuz __________ / __________.
________ /________ eta gauez Korrika ta euskara;
euskahaldunei eskerrak __________ /__________.

**DATOZEN**
**EGUN**
**EUSKAL**
**PIZTURIK**

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz ***orroit***[7], __________ / __________
bertzek __________ / __________, herria gaitzetsi;
__________ ta __________ ***berex***[8] ez ***doatzi***[9],
berek nahi daukute ______________.
bata bertzea ________ ez daizkela bizi.

**AHANTZI**
**EUSKARAZ**
**MAITE**
**KONPRENIARAZI**

➡ Zenbat hitz kokatu dituzu dagokien lekuan? .............................................................. ☐

1. **Dagoeneko:** *ya; para entonces*
2. **Aitzakia:** *escusa, pretexto*
3. **Lauda ezan:** *alaba, elogia (agintera)*
4. **Ahaldundu:** *apoderar(se), facultar(se)*
5. **Gagozen:** *egon gaitezen*
6. **Preziatu:** *apreciar, enorgullecerse*
7. **Orroit:** *oroit(u), gogora(tu)*
8. **Berex:** *bereiz, por separado*
9. **Doatzi:** *doaz*

# ZUZENKETAK

## 1. ataza: Korrika 19. *Denok Korrikara!*

**Korrika 19ren kanta:**

**1. ARIKETA**

**Erantzun zuzenak:** 1.-b; 2. -c.

**2. ARIKETA**

1. Ez, Fermin Muguruzaren kanta ez da *Ni ere bai*; *Big Beñat* da /*Big Beñat* baizik.
2. Gozategik 1997an egin zuen Korrika-kanta.
3. *Denok Korrikara!* kanta Jojo Bordagaraik, Amaia Ezenarrok eta Andoi Tolosak abesten dute.
4. Ez, kontrabaxua ez du Andoni Tolosak jotzen; Mattin Sorzabalberek jotzen du / Mattin Sorzabalberek baizik.

**3. ARIKETA**

1. Korrika 19ren kantaren doinua ez da berria; doinu ezagun batetik hartuta dago.
2. Ez, Oskorrik ez zuen 1545ean argitaratu *Sautrela* kanta; 1977an argitaratu zuen / 1977an baizik.
3. Ez, *Sautrela* bertsoa ez zuen Oskorrik idatzi; Etxeparek idatzi zuen / Etxeparek baizik.
4. Mikel Laboak 1964an argitaratu zuen bere lehenengo diskoa.
5. Xalbador bertsolaria, ogibidez, artzaina zen.

**Kantaren hitzak osatu:**

**Hutsuneak:** *gitarra-jotzailea, hamaika, doinua, txapela, apustua, abesbatza.*
Kantaren hitzak 16. orrialdean dituzu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1:G | 2:I | 3:K | 4:M | 5:O | 6:R | 7:T | 8:X | 9:A | 10:D |
| 11:H | 12:L | 13:P | 14:Z | 15:B | 16:E | 17:J | 18:N | 19:U | 20:S |

**Zer dio kantak?**

1. delako; 2. ospatuko; 3. harro; 4. Korrikaren; 5. baloratu; 6. den; 7. betetzea; 8. esker; 9. dira; 10. elkarrekin; 11. bestea.

# DENOK KORRIKARA!

aek

# 19.korrika KANTA

**Parte-hartzaileak abestian:**
- Amaia Ezenarro (ahotsa)
- Andoni Tolosa (gitarra)
- Asier Goieaskoetxea (dultzaina)
- Cedric Ilhardoy (bateria)
- Jojo Bordagarai (ahotsa)
- Mattin Sorzabalbere (kontrabaxua)
- Maxime Diribarne (dultzaina)

**Eskerrak:**
Oskorriri eta Natxo De Feliperi, Xabier Monasteriori eta Gabriel Arestiren, Mikel Laboaren zein Xalbadorren sendiei.

**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara**

O, Euskara lauda ezan Urepele herria
handikan baitu Korrikak hasiera berria
Bilbon ospatzekotan ba kilometro azkena
Xalbadorren babesean emanen du lehena

**Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika!**
**Euskara da kanpora eta guztiok Korrikara.**

Euskaldunak herrietan ahaldun gaitezen
eta gure mintzaeraz denak harro gagozen,
Urepeletik Bilbora lekukoa gidatzen
Giza katea eten gabe oro laster goazen

**Urepeletik Bilbora...**

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiek hauxe eskatzen dute,
nola zabaldua dagon prezia bezate.

**Urepeletik Bilbora...**

Gogoa konpli dezala euskal jendarteak,
euskahaldun bihurtuz datozen urteak.
Hamar egun eta gauez Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik sugarra.

**Urepeletik Bilbora...**

Batzuk herriaz orroit, euskaraz ahantzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

